

EUSKAL MEZA, 2020 ABENDUAK 13/DECEMBER 13, 2020
ABENDUKO III-N IGANDEA/ADVENT III SUNDAY (B)
MEZA SANTUA- ORDINARY OF THE MASS

HASIERAKO ABESTIA/ENTRANCE SONG

Zatoz Emanuel	Come Emmanuel
<p>Aspaldi gaude deika zerura: pekatu guzien damu gara. Betorkigu Mesias lurrera, Pakea denari zabaltzera.</p> <p>Alai zaitez, ta poztu Israel: Laster datorkizu Emanuel.</p> <p>Entzun gaitzazu Jainko maitea, Bidali laster zure Semea, Guztionzat zeruratzalea, Betiko poza dagigun pakea.</p> <p>Badator Jauna, altza burua! Kantuz has bedi kantuz mundua, Izango bait dugu pekatua Betirako Jaunak zapaldua..</p>	<p>Since long we are calling the Heavens, We are sorry for all our sins, May the Messiah come to the earth, To bring peace to all.</p> <p>Be joyful and exult oh Israel! Emmanuel is soon to arrive.</p> <p>Listen to our prayer our loving God, Send us Your Son without delay. He will bring us all to Heaven, To the eternal joyful peace.</p> <p>The Lord is near, arise your heads, May the world break into songs, Because all our sins God will crush under his feet.</p>

HASIERAKO OHIKUNEAK-INTRODUCTORY RITES

<p>† Aitaren, eta + Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. ☉ Amen.</p> <p>Agurra</p> <p>† Jaungoiko gure Aitaren, eta Jesukristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.</p> <p>☉ Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesukristo gure Jaunaren Aita.</p>	<p>† In the Name of the Father, + and of the Son, and of the Holy Spirit. ☉ Amen.</p> <p>Greeting</p> <p>† Grace to you and peace from God our Father and the Lord Jesus Christ.</p> <p>☉ And with your spirit.</p>
---	---

DAMU OTOITZA- PENITENTIAL RITE

<p>† Senide maiteok, aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santu hauek ospatzeko gai izan gaitzen.</p> <p>† Jesus Jauna, bihotz urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna.</p>	<p>† Brothers and sisters let us acknowledge our sins, and so prepare ourselves to celebrate the sacred mysteries.</p>
--	--

<p>⊙ Erruki, Jauna.</p> <p>† Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki.</p> <p>⊙ Kristo, erruki.</p> <p>† Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: erruki, Jauna.</p> <p>⊙ Erruki, Jauna.</p> <p>† Erruki dakiguela Jainko guztiz ahaltsua eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.</p> <p>⊙ Amen.</p>	<p>† You raise the dead to life in the Spirit: Lord, have mercy.</p> <p>⊙ Lord, have mercy.</p> <p>† You bring pardon and peace to the sinner: Christ, have mercy.</p> <p>⊙ Christ, have mercy.</p> <p>† You bring light to those in darkness: Lord, have mercy.</p> <p>⊙ Lord, have mercy.</p> <p>† May almighty God have mercy on us, forgive us our sins, and bring us to everlasting life.</p> <p>⊙ Amen.</p>
---	---

MEZAKO OTOITZA-OPENING PRAYER

<p>† Egin dezagun otoitz</p> <p>+ Jainko Jauna, ikusten duzu zure herria zure Semearen jaioteguna zintzo itxaroten; iguzu, arren, Gabonetako salbamen miragarriaren zorionera heldu gaitzela, eta pozez beterik ospatu ditzagula jai zoragarri haiek. Zure Seme Jesukristo gure Jaunaren bitartez, zurekin eta Espiritu Santuarekin batean, Jainko eta Errege bizi bait da gizaldi ta gizaldietan.</p> <p>⊙ Amen.</p>	<p>† Let us Pray</p> <p>O God, who see how your people faithfully await the feast of the Lord's Nativity, enable us, we pray, to attain the joys of so great a salvation and to celebrate them always with solemn worship and glad rejoicing.</p> <p>Through our Lord Jesus Christ, your Son, who lives and reigns with you in the unity of the Holy Spirit, one God, for ever and ever.</p> <p>⊙ Amen.</p>
--	--

HITZAREN LITURGIA-LITURGY OF THE WORD

LEHENENGO IRAKURGAIA-FIRST READING

Isaias Liburua/ Is 61:1-2a, 10-11

Isaias Profetaren Liburutik

1 Jainko Jaunaren espiritua nire gainean dago, Jaunak sagaratu bainau; berak nau bidali behartsuei berri ona hots egitera, bihotz-hautsiak sendatzera, gatibuei askatasuna eta kartzelatuei libertatea iragartzera,

2 Jaunak onginahia azalduko duen urtea eta mendekatuko den eguna iragartzera. **10** Pozaren pozez nago Jaunarekin, alai dut arima neure Jainkoarekin, bere salbamenez jantzi bainau, garaipenezko soinekoz estali; eztei-korua janzten duen senargaiaren antzeko naiz, bitxi ederrez apaintzen den andregaiaren antzeko.

11 Lurrak landareak ematen dituen bezala, baratzeak hazia ernearazten duen bezala, halaxe ernearaziko du Jaunak salbamena eta gorespen-kantak altzaraziko nazio guztien aurrean.

From the Prophet Isaiah

The spirit of the Lord GOD is upon me, because the LORD has anointed me; he has sent me to bring glad tidings to the poor, to heal the brokenhearted, to proclaim liberty to the captives and release to the prisoners, to announce a year of favor from the LORD and a day of vindication by our God. I rejoice heartily in the LORD, in my God is the joy of my soul; for he has clothed me with a robe of salvation and wrapped me in a mantle of justice, like a bridegroom adorned with a diadem, like a bride bedecked with her jewels. As the earth brings forth its plants, and a garden makes its growth spring up, so will the Lord GOD make justice and praise spring up before all the nations.

Jaunak esana!

Eskerrak zuri Jauna!

The Word of the Lord!

Thanks be to God!

ERANTZUN-SALMOA/RESPONSORIAL PSALM: LK 1:46-48, 49-50, 53-54

R. Nire anima ozaren pozez dago Jaunarekin.

Nire animak «Jaunaren handitasuna du goستن,
pozaren pozez daukat barrena, Jaunagan,
Bere mirabe honen ezereztasuna ikusi bait du,
dohatsu deituko naute guztiek gaurdanik. **R.**

Gauza handiak egin ditu nire alde Ahalguztidunak.
Santua da bere Izena.
eta gizaldiz gizaldi errukitsua
begirune diotenentzat. **R.**

Ondasunez bete ditu gose zeudenak,
eta esku-hutsik bidali aberatsak;
Lagun etorri zaio bere herri Israeli,
bere errukiaz oroiturik. **R.**

R. My soul rejoices in my God.

My soul proclaims the greatness of the Lord;
my spirit rejoices in God my Savior,
for he has looked upon his lowly servant.
From this day all generations will call me blessed: **R.**

The Almighty has done great things for me,
and holy is his Name.
He has mercy on those who fear him
in every generation. **R.**

He has filled the hungry with good things,
and the rich he has sent away empty.
He has come to the help of his servant Israel
for he has remembered his promise of mercy. **R.**

BIGARREN IRAKURGAIA-SECOND READING

San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei I/ 1 Thess 5:16-24

**San Paulo Apostoluaren Tesalonikarrei egindako
Lehenengo Eskutitzetik**

16 Zaudete beti pozik. **17** Egin otoitz aspertu gabe. **18** Eman eskerrak beti, Jainkoak horixe eskatzen baitizue, Kristo Jesusenak zaretenez. **19** Ez itzali Espirituaren indarra, **20** ez gutxietsi profezi dohainik. **21** Aztertu gauza guztiak eta hartu on dena. **22** Zaindu zeuen buruak edonolako gaiztakeriatik. **23** Bakea ematen duen Jainkoak erabat bereak egin zaitzatela, eta zuen izate osoak –gorputz, arima eta espiritu – errugabe iraun dezala Jesu Kristo gure Jauna agertuko den eguna arte. **24** Leiala da dei egiten dizuen, eta beteko du hitzema.

Jaunak esana!

Eskerrak zuri Jauna!

**From the First Letter of Saint Paul to
the Thessalonians**

Rejoice always. Pray without ceasing. In all circumstances give thanks, for this is the will of God for you in Christ Jesus. Do not quench the Spirit. Do not despise prophetic utterances. Test everything; retain what is good. Refrain from every kind of evil. May the God of peace make you perfectly holy and may you entirely, spirit, soul, and body, be preserved blameless for the coming of our Lord Jesus Christ. The one who calls you is faithful, and he will also accomplish it.

The Word of the Lord!

Thanks be to God!

ALELUIA-ALLELUIA

R. Aleluia, aleluia. Jaunaren espiritua nire gainean dago, berak sagaratu bait nau; behartsuei berri ona hots egitera. R. Aleluia, aleluia.	R. Alleluia, alleluia. The Spirit of the Lord is upon me, because he has anointed me to bring glad tidings to the poor. R. Alleluia, alleluia.
---	--

EBANJELIOA-GOSPEL

† Jauna zuekin. ☉ Eta zure spirituarekin. † Jesukristoren Ebanjelioa San I.(r) en liburutik ☉ Aintza Zuri, Jauna. † Jaunak esana. ☉ Eskerrak Zuri, Jauna	† The Lord be with you ☉ And with your spirit † A Reading from the Holy Gospel according to N ☉ Glory to you, O Lord. † The Gospel of the Lord. ☉ Praise to you, Lord Jesus Christ.
--	--

Ebanjelioa San Joanen Liburutik/ Jn 1:6-8, 19-28

<p>6 Agertu zen gizon bat Jainkoak bidalia; Joan zuen izena. 7 Testigu izatera etorri zen, argiaz testigantza egitera, beraren mezuaren bidez sinets zezaten. 8 Ez zen hura argia, argiaren testigantza egin behar zuena baizik. 19 Judu-agintariak apaiz- eta lebitar-talde bat bidali zioten Joani Jerusalemdik nor zen galdetzeraz. 20 Hark argi eta garbi aitortu zuen: –Ni ez naiz Mesias. 21 –Orduan, zer? Elias zara? –galdetu zioten. Joaneke erantzun: –Ez. –Etortzekoa den profeta zara? Hark erantzun: –Ez. 22 Berriro galdetu zioten: –Nor zaitugu, bada? Bidali gaituztenei erantzunen bat eraman behar diegu. Zer diozu zeure buruaz? 23 Joaneke, Isaias profetaren hitzak aipatu, esan zuen: –Ni, «<i>Prestatu bidea Jaunari</i>» basamortuan oihuka ari denaren ahotsa naiz. 24 Talde hartako batzuk fariseuak ziren. 25 Hauek galdetu zioten: –Beraz, Mesias ez bazara, ez Elias, ezta etortzekoa den profeta ere, nola ari zara bataiatzen? 26 Joaneke erantzun zien: –Nik urez bataiatzen dut; zeuen artean baduzue, ordea, ezagutzen ez duzuen bat, 27 nire ondoren datorrena, eta ni ez naiz inor hari oinetako lokarriak askatzeko ere. 28 Hau dena Betanian gertatu zen, Jordan ibaiaren beste aldean, han ari baitzen Joan bataiatzen.</p> <p>☐ Jaunak esana! ☉ Eskerrak Zuri, Jauna!</p>	<p>A man named John was sent from God. He came for testimony, to testify to the light, so that all might believe through him. He was not the light but came to testify to the light. And this is the testimony of John. When the Jews from Jerusalem sent priests and Levites to him to ask him, “Who are you?” He admitted and did not deny it, but admitted, “I am not the Christ.” So they asked him, “What are you then? Are you Elijah?” And he said, “I am not.” “Are you the Prophet?” He answered, “No.” So they said to him, “Who are you, so we can give an answer to those who sent us? What do you have to say for yourself?” He said: “I am the voice of one crying out in the desert, ‘make straight the way of the Lord,’” as Isaiah the prophet said.” Some Pharisees were also sent. They asked him, “Why then do you baptize if you are not the Christ or Elijah or the Prophet?” John answered them, “I baptize with water; but there is one among you whom you do not recognize, the one who is coming after me, whose sandal strap I am not worthy to untie.” This happened in Bethany across the Jordan, where John was baptizing.</p> <p>☐ The Word of the Lord! ☉ Praise to you, Lord Jesus Christ.!</p>
--	---

HOMILIA-HOMILY

SINESMENAREN AITORMENA-PROFESSION OF FAITH

APOSTOLUEN AITORMENA

† Sinesten dut Jaungoiko Aita ahalguztidun,

☉ Sinisten dut, sinisten dut!

†☉zeru-lurren egilea. Sinesten dut Haren Seme bakar Jesukristo gure Jauna, Espiritu Santuaren egitez sortu eta Andre Maria Birjinagandik jaiotzena; Pontzio Pilatoren menpean nekalduta; gurutzatuta, hila eta hobiratu izan zena; infernuetara jaitsi eta hirugarren eguneko hilatik bizirik piztu zena; zeruetara igo eta Aita Jaungoikoaren eskuin aldean jarri dagoena; handik biziak eta hilak epaitzera etorriko dena.

☉ Sinisten dut, sinisten dut!

Sinesten dut Espiritu Santua, Eliza santu katolikoa, santuen elkartasuna, bekatuen barkamena, hildakoen piztuera eta betiko bizitza. ☉ Amen.

☉ Sinisten dut, sinisten dut!

APOSTLES' CREED

† I believe in God, the Father almighty,

†☉ Creator of heaven and earth, and in Jesus Christ, his only Son, our Lord, who was conceived by the Holy Spirit, born of the Virgin Mary, suffered under Pontius Pilate, was crucified, died and was buried; he descended into hell; on the third day he rose again from the dead; he ascended into heaven, and is seated at the right hand of God the Father almighty; from there he will come to judge the living and the dead.

I believe in the Holy Spirit, the holy catholic Church, the communion of saints, the forgiveness of sins, the resurrection of the body, and life everlasting.

☉ Amen.

JAINKO-HERRIAREN OTOITZA-PRAYER OF THE FAITHFUL

+ Brothers and Sisters: The great day of Christmas is at hand. Inspired by the Holy Spirit let us place our needs before God our Father, through the intercession of the Virgin Mary.

1. For our vulnerable populations: God, protect our elderly and those suffering from chronic disease. Provide for the poor, especially the uninsured. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
2. For our local, state, and federal governments: God, help our elected officials as they allocate the necessary resources for combatting this pandemic. Help them to provide more tests. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
3. For our scientific community, leading the charge to understand the disease and communicate its gravity: God, give them knowledge, wisdom, and a persuasive voice. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
4. For the homeless, unable to practice the protocols of social distancing in the shelter system: Protect them from disease and provide isolation shelters in every city. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
5. For Christian missionaries throughout the world, especially in areas with high rates of infection: God, provide them with words of hope, and equip them to love and serve those around them. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
6. For families with young children at home for the foreseeable future: God, help mothers and fathers to partner together creatively for the care and flourishing of their children. For

single mothers and fathers, grow their networks of support. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**

7. For frontline health care workers, we thank you for their vocational call to serve us. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
8. For people suffering discrimination for the color of the skin, race, language, sex, or gender orientation. That they all may be treated as children of God who wants all to be saved.

+ Lord God of justice and mercy, hear our prayers. Give our beloved dead the reward of their labors and grant us your consolation in our loss. We ask this through Christ our Lord.

R/. Amen.

EUKARISTIAREN LITURGIA-EUCHARISTIC LITURGY

OPARI ESKAINTZA-OFFERTORY

<p>Ogia ta ardoa, eskaintzen dizugu, Ogi ta ardo horiekin, eskaintzen gera gu</p> <p>Ogia dugu Jauna hemen beharrezko Baina zu gabe ezin bizi, ene Jainko.</p> <p>Ardoa dugu, Jauna, hemen beharrezko Baina zu gabe ezin bizi ene Jainko.</p>	<p>Bread and wine, we offer You, With this bread and wine, we offer our very selves.</p> <p>Bread we need here, oh Lord, Since without You, we can't live.</p> <p>Wine, we need here, oh Lord, Since without You, we cannot live</p>
--	--

<p>† Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dizugun ogi au, lurraren indarrak eta gizonaren lanak sortua: hauxe egingo zaigu biziaren ogi.</p> <p>☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.</p> <p>† Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dizugun ardo hau, mahatsondoaren indarrak eta gizonaren lanak sortua: hauxe egingo zaigu betiko zorionaren edari.</p> <p>☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.</p> <p>† Senideok: egin dezagun otoitz, guztiok batean, Eliza osoaren oparia Jaungoikoari eskaintzerakoan.</p> <p>☉ Jainkoa gorestekoa eta gizona salbatzeko.</p>	<p>† Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the bread we offer you: fruit of the earth and work of human hands, it will become for us the bread of life.</p> <p>☉ Blessed be God for ever.</p> <p>† Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the wine we offer you: fruit of the vine and work of human hands; it will become our spiritual drink.</p> <p>☉ Blessed be God for ever.</p> <p>† Pray brothers and sisters, that my sacrifice and yours may be acceptable to God, the almighty Father.</p> <p>☉ May the Lord accept the sacrifice at your hands for the praise and glory of his name, for our good and the good of all his holy Church.</p>
---	--

OPARIGAIEN GAINENKO OTOITZA-PRAYER OVER THE GIFTS

<p>† Atsegin bekizkizula, Jauna, gure opari hauek, eta osatu gudan, sakramentu honen bidez iragartzen duzun salbamena.. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. ☉ Amen.</p>	<p>† May the sacrifice of our worship, Lord, we pray, be offered to you unceasingly, to complete what was begun in sacred mystery and powerfully accomplish for us your saving work. Through Christ our Lord. ☉ Amen.</p>
--	---

EUKARISTI OTOITZA-THE EUCHARISTIC PRAYER

<p>† Jauna zuekin ☉ Eta zure espirituarekin. † Gora bihotzak. ☉ Jaunagan dauzkagu. † Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari. ☉ Egoki da eta zuzen. † Egoki da, bai, eta zuzen, non-nahi eta beti Zuri eskerrak ematea, Jauna, Aita guztiz santu, Jaungoiko Ahalguztidun betiereko Horri, Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Bera, behin apalik etorri zen, gizon egina, zure betidaniko asmoa betetzera eta guri zerurako bidea zabaltzera. Berriz etorriko da, aintzaz beterik, orduan guri bete-betean ematera orain fedez itxaroten dugun saria. Horregatik, aingeru ta santu guztiakin batean, zure aintzari, beti ta beti abesten dizugu goratzarre hau: ☉ Santu, Santu, Santua, diren guztien Jainko Jauna. Zeru-lurak beterik dauzka zure distirak. Hosanna zeru-goienetan! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena. Hosanna zeru-goienetan!</p>	<p>† The Lord be with you. ☉ And with your spirit. † Lift up your hearts. ☉ We lift them up to the Lord. † Let us give thanks to the Lord our God. ☉ It is right and just. † It is truly right and just, our duty and our salvation, always and everywhere to give you thanks, Lord, holy Father, almighty and eternal God, through Christ our Lord. For he assumed at his first coming the lowliness of human flesh, and so fulfilled the design you formed long ago, and opened for us the way to eternal salvation, that, when he comes again in glory and majesty and all is at last made manifest, we who watch for that day may inherit the great promise in which now we dare to hope. And so, with Angels and Archangels, with Thrones and Dominions, and with all the hosts and Powers of heaven, we sing the hymn of your glory, as without end we acclaim: ☉ Holy, Holy, Holy Lord God of hosts. Heaven and earth are full of your glory. Hosanna in the highest. Blessed is he who comes in the name of the Lord. Hosanna in the highest.</p>
---	---

EUKARISTIA OTOITZA II-EUCHARISTIC PRAYER II

<p>† Santu zera, bai, Jauna, eta santutasun guztiaren iturri: Santu egizkizu, bada, ogi eta ardo hauek, zure Espiritua isuriz, Jesukristo gure Jaunaren gorputz † eta odol guretzat egin daitezten.</p>	<p>† You are indeed Holy, O Lord, the fount of all holiness. Make holy, therefore, these gifts, we pray, by sending down your Spirit upon them like the dewfall, so that they may become for us the Body † and Blood of our Lord, Jesus Christ.</p>
---	---

† Berak, saldu zutenean, eta bere gogoz gurutzera zihoala, ogia hartu eta, eskerrak emanez, zatitu zuen eta bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTZAZUE ETA JAN GUZTIOK
HONTATIK: HAU NIRE GORPUTZA DA-TA,
ZUENTZAT EMANGO DENA**

† Afal ondoan, berdin, kaliza harturik, berriz ere eskerrak emanez, bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTZAZUE ETA EDAN GUZTIOK
HONTATIK: HAU NIRE ODOLAREN KALIZA
DA-TA, ITUN BERRI ETA BETIKOAREN
ODOLA, ZUENTZAT ETA GUZTIENTZAT
BEKATUAK BARKATZEKO ISURIKO DENA.
EGIZUE HAU NIRE OROIGARRI**

† **Hau da sinesmenaren misterioa.**

☉ Ogi ardo hauek hartzean, zure heriotza dugu aitortzen, Zu, Jauna, etorri artean!

† Horregatik, Jauna, zure Semearen heriotza eta piztuera gogoratu, biziaren ogia eta salbamenaren kaliza eskaintzen dizkizugu, Zuri eskerrak emanez, aldarean zure zerbitzari onartu gaituzulako.

† Eta apalik eskatzen dizugu, Kristoren gorputz-odolak hartzen ditugunok Espiritu Santuak bat egin gaitzala.

† Gogoan izan, Jauna, mundu guztian zabaldu dagoen zure Eliza: Eramazu maitasun osora, **I.** gure Aita Santuarekin, **I.** gure Artzaiarekin eta elizgizon guztiekin batean.

=====

† Gogoan izan, Jauna, (gaur) mundu honetatik Zuregana eraman duzun **I.** zure zerbitzaria. Heriotzean zure Semearekin bat egin den hau, piztueran ere Berarekin bat izan dadila.

=====

† Gogoan izan, Jauna pizteko itxaropenean joan diren gure senideak eta hildako guztiak: har itzazu zeure aurpegiaren argitan.

† At the time he was betrayed and entered willingly into his Passion, he took bread and, giving thanks, broke it, and gave it to his disciples, saying:

**TAKE THIS, ALL OF YOU, AND EAT OF IT,
FOR THIS IS MY BODY, WHICH WILL BE
GIVEN UP FOR YOU**

† In a similar way, when supper was ended, he took the chalice and, once more giving thanks, he gave it to his disciples, saying:

**TAKE THIS, ALL OF YOU, AND DRINK
FROM IT, FOR THIS IS THE CHALICE OF
MY BLOOD, THE BLOOD OF THE NEW AND
ETERNAL COVENANT, WHICH WILL BE
POURED OUT FOR YOU AND FOR MANY
FOR THE FORGIVENESS OF SINS.
DO THIS IN MEMORY OF ME**

† **The mystery of faith.**

☉ We proclaim your death, O Lord, and profess your Resurrection until you come again.

† Therefore, as we celebrate the memorial of his Death and Resurrection, we offer you, Lord, the Bread of life and the Chalice of salvation, giving thanks that you have held us worthy to be in your presence and minister to you.

† Humbly we pray that, partaking of the Body and Blood of Christ, we may be gathered into one by the Holy Spirit.

† Remember, Lord, your Church, spread throughout the world, and bring her to the fullness of charity, together with **N.** our Pope and **N.** our Bishop and all the clergy.

=====

† Remember your servant **N.**, whom you have called (today) from this world to yourself. Grant that he (she) who was united with your Son in a death like his, may also be one with him in his Resurrection.

=====

† Remember also our brothers and sisters who have fallen asleep in the hope of the resurrection and all who have died in your mercy: welcome them into the light of your face.

<p>† Erruki zakizkigu, arren, guk guztiok betiko biritza iritsi dezagun, Jaungoikoaren Ama Maria dohatsuarekin, Jose Santua haren senarrarekin, apostolu santuekin eta, gizaldi guztietan, zure adiskide izan diren santuekin: haiekin batean gorets zaitzagun, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.</p> <p>† Honen bitartez, Honekin eta Honengan, Zuri Aita Jaungoiko ahalguztidun Horri, Espiritu Santuarekin batean, ospe eta aintza guztia gizaldi eta gizaldi guztietan</p> <p>☉ Amen.</p>	<p>† Have mercy on us all, we pray, that with the blessed Virgin Mary, Mother of God, Joseph her blessed spouse, with the blessed Apostles, and all the Saints who have pleased you throughout the ages, we may merit to be co-heirs to eternal life, and may praise and glorify you through your Son, Jesus Christ.</p> <p>† Through him, and with him, and in him, O God, almighty Father, in the unity of the Holy Spirit, all glory and honor is yours, for ever and ever.</p> <p>☉ Amen.</p>
---	--

JAUNARTEZEKO OHIKUNEA-COMMUNION RITE

<p>† Salbatzaileak agindu eta erakutsiari Jarraituz, beldur gabe esan dezagun:</p> <p>†☉ Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurlean ere.</p> <p>Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere gure zordunei barkatzen diegunez gero; eta ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik.</p> <p>† Atera gaitzazu, Jauna, gaitz guztietatik; emaguzu bakea gure egunotan; zure errukiari esker bekatutik garbi bizi gaitezen eta estualdietan sendo, betiko zorionaren itxaropenean, Jesukristo gure salbatzailea noiz etorriko den zai gaudela</p> <p>☉ Zurea duzu erregetza, zureak ospe eta indarra orain eta beti.</p>	<p>† At the Savior's command and formed by divine teaching, we dare to say:</p> <p>†☉ Our Father, who art in heaven, hallowed be thy name; thy kingdom come, thy will be done on earth as it is in heaven.</p> <p>Give us this day our daily bread, and forgive us our trespasses, as we forgive those who trespass against us; and lead us not into temptation but deliver us from evil.</p> <p>† Deliver us, Lord, we pray, from every evil, graciously grant peace in our days, that, by the help of your mercy, we may be always free from sin and safe from all distress, as we await the blessed hope and the coming of our Savior, Jesus Christ.</p> <p>☉ For the kingdom, the power and the glory are yours now and forever.</p>
--	--

PAKEAREN OHIKUNEA RITE OF THE PEACE

<p>† Jesukristo gure Jauna, Zuk esana da apostoluei: "Bakea uzten dizuet, nire bakea ematen." Begira zure Elizaren sinesmenari, eta ez gure bekatuei; eta, zure gogoa den bezala, emaiozu Elizari bakea, eman batasuna, Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.</p> <p>☉ Amen.</p> <p>† Jaunaren bakea beti zuekin.</p> <p>☉ Eta zure espirituarekin.</p> <p>† Emaiozue bakea elkarri.</p>	<p>† Lord Jesus Christ, who said to your Apostles, Peace I leave you, my peace I give you; look not on our sins, but on the faith of your Church, and graciously grant her peace and unity in accordance with your will. Who live and reign forever and ever.</p> <p>☉ Amen.</p> <p>† The peace of the Lord be with you always.</p> <p>☉ And with your spirit.</p> <p>† Let us offer each other the sign of peace.</p>
---	---

<p>☉ Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna. Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna. Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: emaguzu bakea.</p> <p>† Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!</p> <p>☉ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko, baina esazu hitz bat, eta sendatuko naiz.</p> <p>† Kristoren Gorputza.</p> <p>☉ Amen.</p>	<p>☉ Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us. Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us. Lamb of God, you take away the sins of the world, grant us peace.</p> <p>† Behold the Lamb of God; behold him who takes away the sins of the world. Blessed are those called to the supper of the Lamb.</p> <p>☉ Lord, I am not worthy that you should enter under my roof, but only say the word and my soul shall be healed.</p> <p>† The body of Christ.</p> <p>☉ Amen.</p>
--	--

JAUNARTZE ABESTIA/COMMUNION HYMN

<p>JESUS MUNDUKO ARGIA Jesus zinezko egia. Jesus betiko bizia.</p> <p>1. Jesus Jainko gizona Zuri gure bizia hartu gure Jaun ona, gu geraden guztia. 2. Gure bihotz barruan biztu zure argia gaitezen gu munduan argi Jainkoz betea.</p>	<p>Jesus is the light of the world, Jesus is the absolute truth Jesus is the eternal life.</p> <p>1. Jesus, God and man, to you our lives Receive, our good Lord, all what we are. 2. Kindle your Light inside our heart, So, we become God's light in the world.</p>
---	--

JAUNARTZE ONDORENGO OTOITZA-PRAYER AFTER COMMUNION

<p>+ Jauna, zure errukiari deika gaude; hartu dugun sakramentu honek, aska gaitzala gure ohitura gaiztoetatik eta datozen jaietarako prestatu gaitzala. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.</p> <p>R/. Amen.</p>	<p>+ We implore your mercy, Lord, that this divine sustenance may cleanse us of our faults and prepare us for the coming feasts. Through Christ our Lord.</p> <p>R/. Amen.</p>
--	---

BUKAERAKO OHIKUNEA BEDEINKAPENA-FINAL BLESSING

<p>† Jauna zuekin. ☉ Eta zure espirituarekin. † Bedeinka zaitzatela Jaungoiko ahalguztidunak: Aitak eta Semeak + eta Espiritu Santuak. ☉ Amen. † Zoazte Jaunaren bakean. Aleluia, Aleluia</p>	<p>† The Lord be with you. ☉ And with your spirit. † May almighty God bless you: the Father, and the Son, + and the Holy Spirit. ☉ Amen. † Go forth, the Mass is ended. Alleluia, Alleluia.</p>
--	---

AZKEN ABESTIA-FINAL SONG

<p>Aingeru batek Mariari Dio graziaz betea Jaungoikoaren semeari Emanen diozu sortzea.</p>	<p>The Angel to Mary Says: you full of grace; To the Son of God You are to give live.</p>
<p>Jainkoaren nahi saildua Ni-baitan dadin egin Izan nadien amatua Bainan geldituz Birjina.</p>	<p>The holy will of God, Be made in my being So I may be loved Staying always a Virgin.</p>
<p>Orduan Berbo Dibinoa Gorputz batez da beztitzen Oi, ontasun egiazkoa : Jauna gurekin egoiten.</p>	<p>Then the Divine Word Is dressed with human body; What a true marvel: God staying with us.</p>
<p>Otoitz zazu zure Semea Gure Ama amultsua Izan dezagun fagorea Ardiesteko zerua.</p>	<p>Pray to your Son Our generous Mother; We may get your favor To reach the Heaven.</p>
<p><i>Errepika 1</i></p> <p>Goiz arrats eta eguerditan, Ama laudatzen zaitugu, Aingeruaren hitzak berak Errepikatzen ditugu</p>	<p><i>Refrain</i></p> <p>Morning, evening and midday Mother, we praise you; The very words of the Angel We take in our mouths.</p>



Egun on bat opa dizuet! 🙌 wish you a wonderful day



ABENDUKO HIRUGARREN IGANDEA B

Lehen irakurgaia

(Salbatzaileak bozkarioa ekartzen)

Izai profetaren liburutik 61, 1-2. 10-11

1 Jainko Jaunaren Izpiritua nere gainean dago, Jaunak gantzutu bainau. Igorri nau behartsueri berri onaren ekartzera, bihotz urratuen sendatzera, preso direneri eta giltzapetueri libertatearen berri emaitera, **2** Jaunak eman graziazko urtearen berri emaitera. **10** Pozez betetzen nau Jaunak, nere Jainkoa baitan alai daukat arima, salbamendua jantzi eman baitaut, zuzentasuna soingaineko, senar ezkonberria koronaz edertzen den bezala, eta emazte ezkonberria edergailuz apaintzen. **11** Lurrak landareak emaiten dituen bezala, eta baratzeak haziak sorrarazten, hala sorraraziko ditu Jaunak zuzentasuna eta goresmena nazione guzien aitzinean.

Jaunak errana!

Eskerrak Zuri Jauna.

Salmoa Kantika (Luk 1,46-54)

Leloa : Kantuz ari zait nere arima Jainkoari !

Kantuz ari zait nere arima Jainkoari,
Haren goresle kantuz ari.
Naizen neskato apal hau baitu hautatua,
Mendeek neri: Dohatsua.

Zoin handi nitan Jainko Jaun guziz indartsua,
Haren izena zoin saindua.
Urrikalmenduz betea dago mendez mende,
Sineste duten jenden alde.

Gose zaudenak nasaiki ditu gozarazi,
Aseak aldiz hutsik utzi
Behatu dio Izrael bere jendeari,
Lehen bezala urrikari.

Bigarren irakurgaia

(Nola presta Jaunaren etortzeari buruz)

Jondoni Paulok Tezalonikarrerri 5,16-24

Haurrideak,

16 Zaudezte beti alegera, 17 egin otoitz aspertu gabe, 18 orotan eman eskerrak, hori nahi baitu zuentzat Jainkoak Kristo Jesusen baitan. 19 Ez itzal Izpiritua, 20 ez gutiets profetak, 21 bainan oro hazta, eta on dena har. 22 Bazterrerat utz nolanhiko gaixtakeriak. 23 Bakearen Jainkoak berak egin zaitzatela osorik saildu, eta zuen izaite osoak – izpiritu, arima eta gorputz - hobenik gabe iraun dezala, Jesu Kristo gure Jaunaren etortzea arte. 24 Leiala da dei egin dautzuen: eta beteko du hitzemaia.

Jaunak errana!
Eskerrak Zuri Jauna.

Ebanjelioa

Alleluia, alleluia

Goi-goikoaren profeta, Joanes, etorri da
Jaunari bidearen prestatzera eta Argiaren lekuko izaitera

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik : 1,6-8 ; 19-28

6 Agertu zen gizon bat Jainkoak igorria: izena zuen Joanes. 7 Lekuko izaitera etorria zen, argiaren lekuko izan zadin, haren bidez guziek sinets zezaten. 8 Bera ez zen argia, bainan argiaren lekuko izan behar zuena. 19 Hau da Joanesek egin zuen aitormena, Juduek Jerusalemetik apez eta lebitar batzu igorri ziozkatenean galdatzera: “Nor zira zu ?” 20 Harek argi eta garbi aitortu zuen: “Ni ez naiz Mesias.” 21 Galdegin zioten: “Nor zira bada? Eli ote zira?” Ihardetsi zuen: “Ez.” Heiek: “Orduan, etortzekoa den profeta zira? ” Harek ihardetsi: “Ez.” 22 Berriz erran zioten: “ Nor zira, bada? Igorri gaituzteneri ihardetsi behar diotegu. Zer diozu zeure buruaz?” 23 Joanesek erran zuen: “Ni basamortuan oihuka ari denaren mintzoa naiz: Xuxen zozue bidea Jaunari, Izai profetak erran duen bezala.” 24 Igorriak zirenetan baziren farisauak. 25 Hauek galdatu zioten oraino: “Zergatik bataiatzen duzu, bada, ez bazira Mesias, ez Eli, ez eta etortzekoa den profeta?” 26: Joanesek ihardetsi zioten: “Nik urez bataiatzen dut. Bainan zuen artean baduzue ezagutzen ez duzuen bat, 27 nere ondotik datorrena, eta ni ez naiz on hari oinetakoen lokarrien laxatzeko ere.” 28 Hau guzia Betanian gertatu zen, Jordan ibaiaren bestaldean, han ari baitzen Joanes bataiatzen.

Jaunak errana!
Eskerrak Zuri Jauna.